

EBAZPENA / RESOLUCION

Espediente zk./ Expediente nº: 750/2026

Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen

Prozedura/ Procedimiento: Norgehiagoka bidezko dirulaguntzak/ Subvenciones por Concurrencia Competitiva

Espedientearen gaia/ Asunto del Expediente: Norgehiagoka bidezko Diru-laguntzen deialdia eta emakidapena / Convocatoria y Concesión de Subvenciones por Procedimiento de Concurrencia Competitiva - BIZIBERRI- Merkataritza jarduera sustatzeko, eta euskarazko hizkuntza-paisaia bultzatzeko dirulaguntzen deialdia- Convocatoria de ayudas promoción de la actividad comercial y el impulso del paisaje lingüístico en euskera

EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

MERKATARITZA JARDUERA SUSPERTZEKO ETA SUSTATZEKO, ETA EUSKARAZKO HIZKUNTZA-PAISAIA BULTZATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA ONESTEA

Galdakaoko Udalaren Osoko Bilkurak, 2025eko urriaren 30eko Ohiko Bilkuran, erabaki zuen behin-betiko onartzea honako laguntza hauek emateko berariazko oinarri arautzaileak: Galdakaoko udalerrian merkataritza jarduera suspertzeko eta sustatzeko, eta euskarazko hizkuntza-paisaia bultzatzeko laguntzak.

Behin-behinean onartutako testuari alegaziorik aurkeztu ez zaionez, 2026ko urtarrilaren 19an, **2026-0077 dekretuaren** bidez, behin-betiko onartu dela adierazten da. Testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da 2026ko urtarrilaren 28an, 18. zenbakian.

Kreditua dago 24.4314.471.01 partidan.

Toki-sustapeneko eta Enpleguko teknikariaren txostena dago, 2026ko otsailaren 11n.

2026(e)ko otsailaren 11(a)(e)ko PR/2026/449 ebazpen proposamena ikusita, 2026(e)ko otsailaren 12 (a)(e)an aldeko fiskalizazioa jaso zuena./ Vista la propuesta de resolución PR/2026/449 de 11 de febrero de 2026 fiscalizada favorablemente con fecha de 12 de febrero de 2026.

APROBACIÓN DE LA CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA LA REVITALIZACIÓN Y PROMOCIÓN DE LA ACTIVIDAD COMERCIAL Y EL IMPULSO DEL PAISAJE LINGÜÍSTICO EN EUSKERA

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 30 de octubre de 2025, acordó aprobar las modificaciones de las bases reguladoras de las ayudas Biziberri destinadas a la revitalización y promoción de la actividad comercial y el impulso del paisaje lingüístico en euskera en el municipio de Galdakao.

No habiéndose presentado alegaciones al texto aprobado provisionalmente, se declaran aprobadas definitivamente mediante decreto 2026-0077 el 19 de enero de 2026. El texto íntegro consta publicado en el "Boletín Oficial de Bizkaia" número 18 del 28 de enero de 2026.

Existe crédito en la partida 24.4314.471.01.

Existe informe de la Técnico de Promoción Local y Empleo de fecha 11 de febrero del 2026.



EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

LEHENENGOA.- Toki-Sustapen eta Enpleguari dagozkion merkataritza jarduera suspertzeko eta sustatzeko, eta euskarazko hizkuntza paisaia bultzatzeko laguntzen deialdia onestea, Ebazpen honen eranskinean dagoen baldintzen arabera.

BIGARRENA.- Deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalaren bidetik. Era berean, deialdiaren testua osorik Udaletxeko iragarki-oholean eta Udalaren web-orrian argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Deialdiari buruzko informazioaz gain, araudi ezargarrion dauden baldintzen arabera izandako emakidei buruzko informazioa ere dirulaguntzen Base Nazionalera bidaltzea.

PRIMERO.- Aprobare la convocatoria de ayudas para la revitalización y promoción de la actividad comercial y el impulso del paisaje lingüístico en euskera correspondiente al ámbito del Desarrollo Local y del Empleo, en los términos que se recogen en el anexo a la presente Resolución.

SEGUNDO.- Publicar un extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia por conducto de la Base de Datos Nacional de Subvenciones. Asimismo, publicar en el tablón de edictos del Ayuntamiento y en la web municipal el texto íntegro de la convocatoria.

TERCERO.- Remitir a la Base Nacional de Subvenciones, además de la información sobre la convocatoria, información sobre la concesión o concesiones recaídas en los términos establecidos en la normativa aplicable.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO
ELECTRÓNICAMENTE**



MERKATARITZA JARDUERA SUSPERTZEKO ETA SUSTATZEKO, ETA EUSKARAZKO HIZKUNTZA-PAISAIA BULTZATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA.

1. ARTIKULUA.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK.

Galdakaoko Udalaren Osoko Bilkurak 2025eko urriaren 30eko ohiko bilkuran, Biziberri dirulaguntzen oinarri arautzaileetan egindako aldaketak onartzea erabaki zuen. Dirulaguntza horien xedea hau da: merkataritza-jarduera biziberritze eta sustatze, baita udalerriko euskarazko paisaia linguistikoa bultzatzea ere. Behin-behineko testuari alegaziorik aurkeztu ez zaionez, 2026ko urtarrilaren 19an, 2026-0077 dekretuaren bidez, behin betiko onartu da. Testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2026ko urtarrilaren 28an, 18. Zenbakian.

Oinarri horiek eta deialdi hau Udalaren web orrian kontsultatu ahalko dira: <https://www.galdakao.eus/gestiones/Ayudas%20y%20Subvenciones>

Ematen diren laguntzak dirulaguntzat hartuko dira, eta arau hauen arabera arautuko dira: Galdakaoko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (2005eko irailaren 9ko BAO, 172. zk.); 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena; eta Galdakaoko Udalaren Aurrekontu Orokorra Betearazteko Araua.

2. ARTIKULUA.- AURREKONTU-KREDITUAK ETA DEIALDIKO DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKOA.

Dirulaguntza horretara bideratutako kreditua, guztira, 82.000 eurokoa da, Udal honen 24.4314.471.01 aurrekontu-partidaren kontura, hargatik eragotzi gabe hasierako zuzkidura handitzea, aurrekontu-baliabideen arabera.

Dirulaguntzaren zenbatekoa aldakorra izango da, eta eskabide bakoitzerako eta laguntza-lerro bakoitzeko zehaztuko da, dirulaguntza lerro bakoitzerako gehieneko muga hauekin:

- 1. lerroa: Laguntzaren gehieneko zenbatekoa errentamenduan eta inbertsioan diruz lagundu daitezkeen zenbatekoen batura izango da. Hauek dira bakoitzaren mugak:
 - o Errentamenduagatiko dirulaguntzaren zenbatekoa errentamenduagatiko gastuaren % 50 izango da, baldin eta 24 hilabetetan zehar justifikatu eta behar bezala ordaintzen bada, eta gehienez ere 7.000,00€ emango dira.
 - o Inbertsioengatiko dirulaguntzaren zenbatekoa justifikatutako eta behar bezala ordaindutako gastuen % 50 izango da, eta pertsona edo erakunde onuradun bakoitzari gehienez 3.000,00 € emango zaizkio. Gehieneko zenbateko hori % 10 igo ahalko da, hau da, 3.300 €-ra arte, oinarri arautzaileen 15.3 atalean adierazitako kasuren bat egiaztatzen bada.

Gailu elektronikoen eramangarriak (telefono mugikorrek, PDAk, ordenagailuak edo antzeko beste batzuk) erosteko inbertsioei dagokienez, gailuaren kostuaren % 50 diruz lagunduko da, eta gehieneko muga gailu bakoitzeko 500 euro izango da, egindako gastu osoaren zenbatekoa edozein dela ere, oinarri arautzaileen 15.3 eta 15.4 ataletan ezarritako mugen arabera.





- 2. lerroa: Inbertsioengatiko dirulaguntzaren zenbatekoa justifikatutako eta behar bezala ordaindutako gastuen % 50 izango da, eta pertsona edo erakunde onuradun bakoitzari gehienez 3.000,00€ emango zaizkio. Gehieneko zenbateko hori % 10 igo ahalko da, hau da, 3.300€-ra arte, oinarri arautzaileen 16.3 atalean adierazitako kasuren bat egiaztatzen bada.

Gailu elektroniko eramangarriak (telefono mugikorak, PDAk, ordenagailuak edo antzeko beste batzuk) erosteko inbertsioei dagokienez, gailuaren kostuaren % 50 diruz lagunduko da, eta gehieneko muga gailu bakoitzeko 500 euro izango da, egindako gastu osoaren zenbatekoa edozein dela ere, oinarri arautzaileen 16.3 eta 16.4 ataletan ezarritako muga arabera.

- 3. lerroa: Zenbatekoa honako hau izango da: diruz lagundu daitezkeen lau jarduketa-tipologietako bakoitzaren zenbatekoen batura (irudi korporatiboa, errotulazioa, publizitatea eta web-orriak). Gehieneko zenbatekoak honako hauek dira:
 - o Justifikatu eta behar bezala ordaindutako gastuaren % 50 lagunduko da diruz, baldin eta elementu guztiak euskaraz gauzatzen badira; diruz lagun daitezkeen ekintza bakoitzeko gehieneko muga 350 euro da.
 - o Justifikatu eta behar bezala ordaindutako gastuaren % 30 lagunduko da diruz, baldin eta elementu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz gauzatzen badira; diruz lagun daitezkeen ekintza bakoitzeko gehieneko muga 175 euro da.

3. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZAREN XEDEA ETA HELBURUA.

Helburua da Galdakako udalerrian txikizkako merkataritzaren eta zerbitzuen eskaintza ezarri eta hobetu dadin sustatzea, laguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarri den bezala.

Horretarako, hiru laguntza-lerro hauek bultzatzen dira:

- 1. lerroa: merkataritza-dentsitate oso txikia duten eremuetan hurbileko negozio berriak sortzen laguntzea. 2024ko urtarrilaren 1etik, 2025eko abenduaren 31ra arte sortu edo ireki diren hurbileko merkataritza-establezimendu berrien alokairua eta inbertsioa finantzatzen dute laguntza hauek, merkataritza-dentsitate txikiko eremuetan. Laguntza-lerro honen helburu nagusia da herritarrei gutxieneko zerbitzu-eskaintza bermatzea auzo sakabanatuetan.
- 2. lerroa: MSPB eremuko merkataritza-establezimenduei laguntzea. Deialdi hau argitaratzen den unean alta emanda dauden MSPB eremuetako merkataritza-establezimenduetan egindako inbertsioa finantzatzea. Eremu horretako merkataritza-jarduera hobetzea eragin eta sustatu nahi da, eta horretarako, inbertsioak finantzatuko dira, bai establezimendu berriak irekitzeko, bai establezimenduak berritzeko.
- 3. lerroa: hizkuntza-paisaia euskalduntzeko dirulaguntzak. Galdakako udalerrian garatzen den jarduera ekonomikoan euskarazko hizkuntza-paisaiaren hobekuntza finantzatzea, eta horretarako, irudi korporatiboa, errotulazioa, webgunea eta publizitatea euskalduntzea.





4. ARTIKULUA.- LAGUNTZAK EMATEKO ARAUBIDEA ETA BATERAGARRITASUNA.

Dirulaguntzak emateko araubidea norgehiagokarik gabeko konkurrentzia da.

Kasu honetan, aurkezten diren hurrenkeran ebatziko dira eskabideak, ezarritako epearen barruan, eta baldintzak betetzen dituztenei emango zaizkie laguntzak, harik eta aurreikusitako kreditua edo laguntza horietarako gehieneko zenbatekoa agortu arte.

Aurkezpen-hurrenkera ezartzeko, eskaera behar bezala aurkeztu den unea hartzen da; hau da, eskaera dagokion epean eta moduan aurkeztu behar da, eskatutako dokumentazio guztiarekin batera, eta, hala badagokio, instrukzio-arloak antzemandako akatsak zuzenduta.

Kreditua agortu ondoren, epearen barruan behar bezala aurkeztutako gainerako eskabideak ezetsi egingo dira, salbu eta kreditua sortu, handitu edo gehitzearen ondorioz kreditu erabilgarria handitzen bada. Kasu horietan, ez da beharrezkoa izango beste deialdi bat egitea.

1. eta 2. lerroetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak izango dira, bai beren artean, bai helburu bererako emandako beste edozein laguntza, baliabide edo dirulaguntza publikorekin, Galdakako Udalak emandakoak barne.

3. lerroan aurreikusitako laguntzak, hizkuntza-paisaia euskalduntzeko laguntzak, bateragarriak izango dira oinarri hauetan araututako 1. eta 2. lerroekin.

Nolanahi ere, dirulaguntzetatik eta beste iturri batzuetatik lortutako finantzaketaren zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

5. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZA ESKATZEKO BALDINTZAK ETA DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK EGIAZTATZEKO MODUA

Onuradunak:

Onuradun izan daitezke norberaren konturako langileak edo autonomoak, ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak, eta Galdakako udalerrian jarduera ekonomikoa duten 5 langile baino gutxiagoko mikroenpresak, betiere egunean badaude zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez.

Gainera, 1. lerroko laguntzen onuradun izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) 2024ko urtarrilaren 1etik, 2025eko abenduaren 31ra arte hurbileko merkataritza-establezimendu berri bat sortu izana merkataritza-dentsitate oso txikiko eremuetan, oinarri arautzaileen 15.1.3 atalean ezarritakoaren arabera.
- b) Jarduera Ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea, oinarri arautzaileen 15.1.2 atalean deskribatzen diren hurbileko merkataritzarekin lotutako epigraferen batean.
- c) Diruz lagundu daitezkeen zenbatekoak a) letran adierazitako daten barruan egindako eta ordaindukoak izango dira.





Laguntzen 2. lerrorako, onuradunak merkataritza-jarduera baten titular izan beharko dira (Oinarri arautzaileen I. eranskineko zerrendan jasotako jarduera izan beharko da), MSPB* eremuan kokatutako kaleko establezimendu finko batean (Oinarri arautzaileen II. eranskinean jasotako planoaren arabera), eta 2025eko otsailaren 17tik 2026ko martxoaren 1era arteko epean establezimenduak berritzeko edo irekitzeko inbertsio-proiektuei ekin behar izan diete.

3. lerroan onuradun izango dira Galdakaon egiten den edozein motatako jarduera ekonomikoren titularrak, baldin eta dirulaguntzaren xede diren euskalduntze-jarduerak egin badituzte 2025eko otsailaren 17tik 2026ko martxoaren 1era arteko epean.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira soilik lerro bakoitzerako adierazitako daten barruan gauzatu eta benetan ordaindu direnak, baldin eta oinarri arautzaileetan adierazitako baldintza guztiak betetzen badituzte.

Baldintzak egiaztatzeko, eskabidea aurkeztu beharko da, 6. eta 8. puntuetan azaltzen den moduan.

6. ARTIKULUA.- ESKABIDEAK AURKEZTEA.

- Epea: Dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epea martxoaren 2tik martxoaren 27ra arte izango da, biak barne.

- Lekua: Oro har eta lehenetsunez, eskaerak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, webgune honetan: <https://www.galdakao.eus/gestiones/Ayudas%20y%20Subvenciones>

Aurrez aurre, Toki Sustapeneko eta Enpleguko udal arloaren bulegoan (Zabalea 35, Galdakao) agiriak aurkezteko laguntza emango da. Horretarako, hitzordua eskatu beharko da aldeztatik 944010580 telefonoan.

Eskaera aurkezteko, aldeztatik, sinadura elektronikorik ez duten eskatzaileek BakQ-a lortu beharko dute ESAN bulegoan edo KZ-gunean.

7. ARTIKULUA.- EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA

Dirulaguntzak emateko prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdi hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Gehieneko epea igaro eta interesdunei ez bazaie ebazpenik jakinarazi, dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsitatzat jo daiteke.

8. ARTIKULUA.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK

Oinarri Arautzaileen arabera, interesdunak eskabide-eredu normalizatuaren bidez aurkeztu beharko ditu eskabideak. Eredu hori nahitaez erabili beharko da, eta Galdakako Udalaren





webgunean egongo da eskuragarri <https://www.galdakao.eus/gestiones/Ayudas%20y%20Subvenciones> eta eskaera deialdi honen 6. artikuluan ezarri den bezala egin beharko da.

Dagokion atalean, honako egiaztagiri hauek erantsi beharko zaizkio eskabideari:

- Eskatutako lerro bakoitzeko, diruz lagundu daitekeen xedea edo jarduera bete dela egiaztatzen duen agiria: argazkiak, dokumentuak, audio-fitxategiak, etab.
- Jardueren gastua eta ordainketa justifikatzeko, oinarri arautzaileen 9. puntuari ezarritakoa.
- 1. lerroko laguntzen kasuan, errentamendu-gastuak aurkezten direnean, errentamendu-kontratuaren kopia aurkeztu beharko da, baldin eta jarduera egiten den alokatutako lokalari dagozkion diruz lagundutako gastuak aurkezten badira.
- Hala badagokio, dagokion Zerga Administrazioaren agiria: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren salbuespenaren aitortpena, edo eskainitako ondasun eta zerbitzuen truke ez kobratzeagatik Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak ez direla egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Hala badagokio, ondasun-erkidegoaren edo sozietate zibilaren eraketa honela egiaztatuko da: kontratu pribatu edo eskritura publiko bidez, edo bazkideen nortasuna, partaidetza-ehunekoa, egoitza soziala eta fiskala eta garatzen duen jarduera egiaztatzen dituen beste edozein agiriren bidez.
- Hala badagokio, pertsona juridikoaren eratze-eskritura eta estatutuak, eguneratuta, dagokion erregistroan inskribatuta.
- Hala badagokio, 5 langile baino gutxiagoko mikroenpresatzat hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa. Eskaera egin aurreko hilabeteko langileen izenen zerrenda aurkeztu beharko da (TC2), eta zuzenbidean onartutako edozein modutan egiaztatu beharko da guztizko negozio-zifra edo guztizko salmenta-bolumena (amaitutako azken ekitaldia hartuko da kontuan).
- Hartzekodunen orria (bankuko datuak), banketxeak behar bezala sinatuta eta zigilatuta; udal webgunetik deskargatu ahalko da aldezturik.

Galdakako Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez, Administrazioaren esku dauden interesdunen datuei dagozkien beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, salbu eta zuk berariaz aurka egiten baduzu; kasu horretan, dokumentazio hau aurkeztu beharko duzu:

- Pertsona fisiko eskatzailearen edo ordezkariaren nortasuna.
- Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketa-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
- Lantokia Galdakaon eta/edo dirulaguntza jaso dezaketen eremuetan egotearen egiaztapenak.
- Inbertsioa egiteko betebeharrak bete izanaren egiaztapenak (aldezturik aurreko jakinarazpena edo, hala badagokio, dagokion lizentzia izatea).
- Jardueraren egiaztapenak (EJZ epigrafea).

Salbuespen gisa, Udalak ezin baditu dokumentu horiek eskuratu, berriz ere eskatu ahalko diote interesdunari horiek aurkeztu ditzala.

9. ARTIKULUA.- INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAK EGITEKO ORGANOKO ESKUDUNAK.





Oro har, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Toki Sustapeneko eta Enplegu departamentuak, zeinek dirulaguntza kudeatzen duen, gerta daitezkeen gorabeherak ebartziko ditu, behar diren egiaztapenak egingo ditu eta eskabideak baloratuko ditu.

Eskaerak ebaluatu ondoren, organo instrukzio-egileak txostena egingo du, eta bertan, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko du. Kide anitzeko organoak (Ogasun eta Barne Erregimeneko Informazio Batzordeko kide guztiek osatuko dute), espediente eta kudeaketa-arloaren txostena ikusi ondoren, emakida-proposamena egingo dio ebazteko eskumena duen organoari, eta bertan adieraziko ditu dirulaguntzen onuradunak eta proposatutako zenbatekoak, bai eta proposamen horren arrazoiak ere.

Administrazioari dagokionez, ebazpen-proposamenak ez dio proposatutako onuradunari inolako eskubiderik ematen, laguntza emateko ebazpena onuradunari jakinarazi arte.

Ebazpena emateko organo eskuduna alkatetza izango da, edo hark eskuordetzen duen organoa; kide anitzeko organoak egindako proposamenarekin bat etorriko da, arrazoitua izan beharko du eta dirulaguntzei buruzko udal-ordenantzaren 24. artikuluan ezarritako elementu guztiak jaso beharko ditu.

Ebazpena administrazio-prozedura erkidearen araudiaren arabera jakinaraziko da, ematen denetik gehienez 10 egun balioduneko epean, eta legez bidezkoak diren errekurtsok adieraziko dira.

Ebazpena emateko epean jakinarazpenik egiten ez bada, interesdunek beren eskaera administrazio-isiltasunez ezetsizat jo ahalko dute, egokitzat jotzen dituzten errekurtsok administratibo edo judizialak jartzeko.

10. ARTIKULUA.- ERREKURTSOK.

Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren aurka aukerako berraztertze-errekurtsok aurkez daiteke, hilabeteko epean (artikulu hauetan ezarritakoaren arabera: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 123. eta 124. artikulua), edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsok, bi hilabeteko epean (artikulu honetan ezarritakoaren arabera: 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 46. artikulua).

11. ARTIKULUA.- JAKINARAZTEKO BIDEAK.

Ebazpena eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio, edo, hala badagokio, legezko ordezkariari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

ELEKTRONIKOKI SINATUA





CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA LA REVITALIZACIÓN Y PROMOCIÓN DE LA ACTIVIDAD COMERCIAL Y EL IMPULSO DEL PAISAJE LINGÜÍSTICO EN EUSKERA.

ARTÍCULO 1.- RÉGIMEN JURÍDICO Y BASES REGULADORAS.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 30 de octubre de 2025, acordó aprobar las modificaciones de las bases reguladoras de las ayudas Biziberri destinadas a la revitalización y promoción de la actividad comercial y el impulso del paisaje lingüístico en euskera en el municipio de Galdakao. No habiéndose presentado alegaciones al texto aprobado provisionalmente, se declaran aprobadas definitivamente mediante decreto 2026-0077 el 19 de enero de 2026. El texto íntegro consta publicado en el “Boletín Oficial de Bizkaia” número 18, del 28 de enero de 2026.

Las citadas bases y la presente convocatoria, podrán consultarse en la página web del Ayuntamiento: <https://www.galdakao.eus/gestiones/Ayudas%20y%20Subvenciones>

Las ayudas que se conceden tendrán el carácter de subvención y se registrarán por la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Galdakao (BOB num.172, de 9 de septiembre de 2005) y la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003 y la Norma de Ejecución del Presupuesto General del Ayuntamiento de Galdakao.

ARTICULO 2.- CRÉDITOS PRESUPUESTARIOS Y CUANTÍA TOTAL MÁXIMA DE LAS SUBVENCIONES CONVOCADAS.

El crédito total destinado a esta subvención asciende a 82.000€, con cargo a la partida presupuestaria 24.4314.471.01 de este Ayuntamiento, sin perjuicio de la ampliación de la dotación inicial según disponibilidad presupuestaria.

La cuantía de la subvención será variable y se determinará para cada solicitud y por cada línea de subvención, con el siguiente límite máximo para cada línea de subvención:

- Línea 1: La cuantía máxima de la ayuda será la resultante de la suma de las cuantías subvencionables en arrendamiento e inversión con los siguientes límites:
 - o La cuantía de la subvención por arrendamiento será del 50% del gasto por arrendamiento justificado y debidamente pagado durante 24 meses con un máximo de 7.000,00€.
 - o La cuantía de subvención por inversión será del 50% de gastos justificados y debidamente pagados, hasta un importe máximo individualizado por persona o entidad beneficiaria de 3.000,00€. Dicho importe máximo se podrá incrementar un 10%, es decir, hasta 3.300,00€ si se acredita alguna de las cuestiones determinadas en el apartado 15.3 de las bases reguladoras.

En el caso de inversiones destinadas a la adquisición de dispositivos electrónicos portátiles (teléfonos móviles, PDAs, ordenadores u otros de naturaleza análoga), se subvencionará el 50% de la cuantía del coste del dispositivo hasta un límite de 500€ máximo por dispositivo con independencia de la cuantía total del gasto realizado, con los límites señalados en los apartados 15.3 y 15.4 de las bases reguladoras.





- Línea 2: La cuantía de subvención por inversión será del 50% de gastos justificados y debidamente pagados, hasta un importe máximo individualizado por persona o entidad beneficiaria de 3.000,00€. Dicho importe máximo se podrá incrementar un 10%, es decir, hasta 3.300,00€ si se acredita alguna de las cuestiones determinadas en el apartado 16.3 de las bases reguladoras.

En el caso de inversiones destinadas a la adquisición de dispositivos electrónicos portátiles (teléfonos móviles, PDAs, ordenadores u otros de naturaleza análoga), se subvencionará el 50% de la cuantía del coste del dispositivo hasta un límite de 500€ máximo por dispositivo con independencia de la cuantía total del gasto realizado, con los límites señalados en los apartados 16.3 y 16.4 de las bases reguladoras.

- Línea 3: La cuantía será la resultante de las sumas de las cuantías de cada una de las cuatro tipologías de actuaciones subvencionables (imagen corporativa, rotulación, publicidad y páginas web), que tienen como máximos los siguientes importes:
 - o Se subvencionará el 50% del gasto justificado y debidamente pagado cuando todos los elementos se ejecuten íntegramente en euskera, con un límite máximo de 350 euros, por cada acción subvencionable.
 - o Se subvencionará el 30% del gasto justificado y debidamente pagado cuando todos los elementos se ejecuten en euskera y castellano, con un límite máximo de 175 euros, por cada acción subvencionable.

ARTÍCULO 3.- OBJETO Y FINALIDAD DE LA CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN.

El objeto es impulsar el establecimiento y la mejora de la oferta del comercio minorista y los servicios en el municipio de Galdakao tal y como viene establecido en las bases reguladoras de ayudas.

Para ello se impulsan las siguientes tres líneas de ayudas:

- Línea 1: Apoyo a la creación de nuevos negocios de proximidad en las zonas con muy baja densidad comercial. Son ayudas que financian el alquiler e inversión en nuevos establecimientos comerciales de proximidad, que hayan sido creados o abiertos a partir del 1 de enero de 2024 hasta el 31 de diciembre de 2025; situados en zonas de baja densidad comercial. La principal finalidad de esta línea de ayudas se centra en garantizar una oferta de servicios mínima para la ciudadanía en barrios diseminados.
- Línea 2: Apoyo a los establecimientos comerciales en la zona PERCO. Financiar la inversión en establecimientos comerciales situados en zonas PERCO que estén dados de alta en el momento de publicación de esta convocatoria. Se pretende incidir e impulsar la mejora de la actividad comercial en esta zona, a través de la financiación de inversiones en los mismos, tanto de nuevas aperturas como de renovación de establecimientos.
- Línea 3: Subvenciones para la euskaldunización del paisaje lingüístico. Financiar la mejora del paisaje lingüístico en euskera en la actividad económica desarrollada en el municipio de Galdakao a través de actuaciones de euskaldunización de la imagen corporativa, la rotulación, la página web y la publicidad.





ARTÍCULO 4.- RÉGIMEN DE CONCESIÓN Y COMPATIBILIDAD.

El régimen de concesión de las subvenciones es el de concurrencia no competitiva.

En este supuesto, las solicitudes que se formulen, serán resueltas por orden de presentación dentro del plazo establecido, concediendo las ayudas a quienes cumplan los requisitos hasta agotar el crédito previsto o cuantía máxima destinada a dichas ayudas.

Se entiende por orden de presentación, el momento en el que la solicitud se ha presentado correctamente; es decir, que se ha presentado la solicitud en tiempo y forma junto con toda la documentación requerida y se han subsanado, en su caso, los defectos advertidos por el área instructora.

El resto de solicitudes presentadas correctamente en plazo quedarán desestimadas, salvo que se incremente el crédito disponible como consecuencia de una generación, una ampliación o una incorporación de crédito. En estos casos, no será necesaria una nueva convocatoria.

Las ayudas previstas en las líneas 1 y 2 serán incompatibles entre sí y con cualquier otra ayuda recurso o subvención pública que haya sido otorgada por el mismo fin, incluso las otorgadas por el Ayuntamiento de Galdakao.

Las ayudas previstas en la línea 3, ayudas a paisaje lingüístico, serán compatibles con las líneas 1 y 2 reguladas en estas bases.

En cualquier caso, el montante de la financiación obtenida, por subvenciones y otras fuentes no podrá resultar superior al coste de la actividad subvencionada.

ARTÍCULO 5.- REQUISITOS PARA SOLICITAR LA SUBVENCIÓN Y FORMA DE ACREDITAR LOS GASTOS SUBVENCIONABLES.

Beneficiarios:

Podrán ser beneficiarias las personas trabajadoras por cuenta propia o autónoma, comunidades de bienes o sociedades civiles y las microempresas de menos de 5 trabajadores que ejerzan actividad económica en el municipio de Galdakao, siempre que se encuentren al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

Además, para ser beneficiario de las ayudas de la línea 1 deberán cumplir los siguientes requisitos:

- a) Haber creado un nuevo establecimiento comercial de proximidad entre el 1 de enero de 2024 hasta el 31 de diciembre de 2025 en zonas de muy baja densidad comercial, según lo establecido en el apartado 15.1.3 de las bases reguladoras.
- b) Estar dado de alta en el impuesto sobre actividades económicas en alguno de los epígrafes relacionados con el comercio de proximidad descritos en el apartado 15.1.2. de las bases reguladoras.





c) El cálculo de los importes subvencionables se determinará para aquellos gastos subvencionables que hayan sido efectivamente abonados en el periodo establecido en la letra a).

Para la línea 2 de ayudas las personas beneficiarias deberán ser titulares de una actividad comercial (actividad incluida en el listado del anexo I de las bases reguladoras), en establecimiento fijo a pie de calle ubicado en la zona PERCO* (según el plano recogido en el anexo II, de las bases reguladoras) y que hayan acometido o acometan proyectos de inversión tanto de nuevas aperturas como de renovación de establecimientos desde el 17 de febrero del 2025 hasta el 1 de marzo del 2026.

En la línea 3 serán personas beneficiarias las titulares de cualquier tipo de actividad económica desarrollada en el municipio de Galdakao y que hayan realizado actuaciones de euskaldunización objeto de subvención desde el 17 de febrero de 2025 hasta el 1 de marzo del 2026.

Gastos subvencionables:

Únicamente tendrán la consideración de gastos subvencionables los ejecutados y efectivamente pagados en las fechas indicadas para cada línea y que cumplan con todos los requisitos señalados en las bases reguladoras.

La acreditación de los requisitos se realizará mediante la presentación de la solicitud tal y como se explican en los puntos 6 y 8.

ARTICULO 6.- PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.

- Plazo: El plazo de presentación de las solicitudes será del **2 de marzo al 27 de marzo de 2026**, ambos incluidos.
- Lugar: Con carácter general y preferente, presentación mediante medios electrónicos en la página Web: <https://www.galdakao.eus/gestiones/Ayudas%20y%20Subvenciones>

De forma presencial, se ayudará para la presentación en la oficina municipal de Promoción Local y Empleo, sita en Zabalea 35, Galdakao. Para ello es necesario solicitar cita previa en el teléfono 944010580.

Para la presentación de la solicitud previamente y siempre que no dispongan de firma electrónica, deberán obtener la BakQ en la oficina ESAN o en KZ-Gunea.

ARTÍCULO 7.- PLAZO DE RESOLUCION Y NOTIFICACIÓN.

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento de concesión de subvenciones será de seis meses, contados a partir de la fecha de la publicación de la presente convocatoria en la Base de Datos Nacional de Subvenciones.





El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución a los/as interesados/as, legitima para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión de subvención.

ARTÍCULO 8.- DOCUMENTACIÓN QUE DEBE ACOMPAÑAR LA SOLICITUD.

De acuerdo a las bases reguladoras las personas solicitantes deberán presentar sus solicitudes telemáticamente a través del modelo de solicitud normalizado, de uso obligatorio, que estará disponible en la página web del Ayuntamiento de Galdakao <https://www.galdakao.eus/gestiones/Ayudas%20y%20Subvenciones> y de la forma establecida en el artículo 6 de la presente convocatoria.

En el apartado correspondiente de la solicitud se deberá adjuntar la siguiente documentación acreditativa:

- Para cada línea solicitada una acreditación del cumplimiento del objeto o actividad subvencionables: fotos, documentos, ficheros de audio, etc.
- Para la justificación del gasto y pago de las actuaciones según lo establecido en el punto 9 de las bases reguladoras.
- En el caso de las ayudas de la línea 1, cuando se presenten gastos de arrendamiento se deberá aportar copia del contrato de arrendamiento en caso de presentar gastos subvencionados relativos al local arrendado donde se ejerce la actividad.
- En su caso, declaración de la Administración tributaria correspondiente de exención del Impuesto sobre el Valor Añadido o certificado acreditativo de no ser sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido por no cobrar por los bienes y servicios ofrecidos.
- En su caso, la constitución de la Comunidad de Bienes o Sociedad Civil se acreditará mediante contrato privado o escritura pública, o cualquier otra documentación en la que se pueda constatar la identidad de los/as socios/as, su porcentaje de participación, el domicilio social y fiscal y la actividad que desarrolla.
- En su caso, escritura de constitución y los estatutos de la persona jurídica actualizados, inscritos en el correspondiente Registro.
- En su caso, documentación que acredite cumplir los requisitos para ser calificada de microempresa de menos de 5 trabajadores. Se deberá presentar la relación nominal de trabajadores del mes anterior a la solicitud (TC2) y acreditación de cualquier manera admitida en derecho de la cifra total de negocios o volumen total de ventas (se tendrá en cuenta el último ejercicio finalizado).
- Hoja de acreedores (datos bancarios) debidamente firmada y sellada por la entidad bancaria, que podrá descargarse previamente de la web municipal.

El Ayuntamiento de Galdakao, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, realizará las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, salvo que usted se oponga expresamente, en cuyo caso deberá aportar la siguiente documentación:

- Identidad de la persona física solicitante o representante.
- Certificado de hallarse al corriente de obligaciones tributarias con Hacienda.
- Certificado de estar al corriente de las obligaciones de pago con la Seguridad Social.
- Comprobar que el centro de trabajo se encuentra en Galdakao y/o en las zonas subvencionables.
- Acreditación del cumplimiento de las obligaciones para realizar la inversión (comunicación previa o disponer de la licencia correspondiente, en su caso).





- Comprobación de la actividad (epígrafe IAE).

Excepcionalmente, si el Ayuntamiento no pudiera recabar los citados documentos, podrán solicitar nuevamente al interesado su aportación.

ARTÍCULO 9.- ÓRGANOS COMPETENTES PARA LA INSTRUCCIÓN Y RESOLUCIÓN.

Con carácter general, una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, el Departamento de Desarrollo Local y Empleo, gestor de la subvención, resolverá las incidencias que se pudieran dar y realizará las comprobaciones necesarias y la valoración de las solicitudes.

Una vez evaluadas las solicitudes, el órgano instructor emitirá informe en el que se concrete el resultado de la evaluación efectuada. El órgano colegiado, formado por todos los miembros de la Comisión Informativa de Hacienda y Régimen Interior, a la vista del expediente y del informe del área gestora, emitirá propuesta de concesión al órgano competente para resolver, expresando las personas beneficiarias de las subvenciones y las cuantías propuestas de las mismas, así como la motivación de dicha propuesta.

La propuesta de resolución no crea derecho alguno del beneficiario propuesto, frente a la Administración, mientras no se le haya notificado la resolución de concesión.

El órgano competente para resolver será la Alcaldía, u órgano en quien delegue, de conformidad con la propuesta formulada por el órgano colegiado, y deberá ser motivada y contener todos los elementos establecidos en el artículo 24 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

La notificación de la resolución se efectuará según la normativa de procedimiento administrativo común en el plazo máximo de 10 días hábiles desde que fuese emitida, expresando los recursos legalmente procedentes.

El vencimiento del plazo para dictar resolución sin haberse notificado, legitima a los interesados para entender desestimada su solicitud por silencio administrativo, a fin de interponer los recursos administrativos o judiciales que estimen pertinentes.

ARTÍCULO 10.- RECURSOS.

Contra la resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición regulado en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses en los términos previstos en el artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.





ARTICULO 11.- MEDIOS DE NOTIFICACIÓN.

La resolución será notificada a cada persona solicitante o, en su caso, al representante legal, de acuerdo con lo previsto en los artículos 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

FIRMADO ELECTRONICAMENTE

